Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

5887

EBAZPENA, 2010eko azaroaren 4koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena; honen bidez, 2010 ekitaldirako euskal turismoko azpisektoreetan kalitatearen eta bikaintasunaren ziurtagiria sustatzeko ekimenetarako laguntza-esleipenaren baliabide ekonomikoak handitu direla jakinarazten da.

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko urtarrilaren 28ko Aginduaren bidez (2008ko otsailaren 20ko EHAA), euskal turismoko azpisektoreetan kalitatearen eta bikaintasunaren ziurtagiria sustatzen duten ekimenei laguntzeko programa finkatzen da. Agindu hori Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko maiatzaren 26ko Aginduak aldatu du (2010eko ekainaren 22ko EHAA).

Turismoko azpisektoreetan kalitatearen eta bikaintasunaren ziurtagiria sustatzeko ekimenetarako laguntza-esleipenaren deialdi publikoa egiten zuen Merkataritza eta Turismoko sailburuordearen 2010eko ekainaren 24ko Ebazpenaren 1. artikuluak dioenaren arabera, bertan 2010 ekitaldian emango diren dirulaguntzetarako ezarri ziren fondoak handitzea bidezkoa da.

Horrenbestez, 2010eko ekainaren 24ko Ebazpenaren 1. artikuluan ezarritako ahalmena erabilita, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– 2010eko ekainaren 24ko Ebazpenean 2010 ekitaldirako aurreikusi diren baliabide ekonomikoak 142.439,50 eurora arte handitzea, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren bestelako laguntza programetan agortu ez diren aurrekontu zatien arabera. Ebazpen horren bidez argitara eman zen euskal turismoko azpisektoreetan kalitatearen eta bikaintasunaren ziurtagiria sustatzeko ekimenetarako laguntza-esleipenaren deialdi publikoa.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

5887

RESOLUCIÓN de 4 de noviembre de 2010, de la Viceconsejera de Comercio y Turismo, por la que se hace público el aumento de los recursos destinados a las ayudas a las iniciativas que promuevan la certificación de la Calidad y la Excelencia en la Gestión en los subsectores turísticos vascos para el ejercicio 2010.

La Orden de 28 de enero de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo (BOPV de 20 de febrero de 2008), establece el programa de apoyo a las iniciativas que promuevan la certificación de la calidad y la excelencia en la gestión en los subsectores turísticos vascos, y ha sido modificada por Orden de 26 de mayo de 2010, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo (BOPV de 22 de junio de 2010).

De conformidad a lo establecido en el artículo 1 de la resolución de 24 de junio de 2010 de la Viceconsejera de Comercio y Turismo por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas para las iniciativas que promuevan la certificación de la Calidad y la Excelencia en la Gestión en los subsectores turísticos vascos, procede realizar el incremento de los fondos destinados a las ayudas que en la misma se establecen para el ejercicio 2010.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 1 de la Resolución de 24 de junio de 2010,

DISPONGO:

Primero.– Incrementar hasta un total de 142.439,50 euros los recursos económicos previstos para el ejercicio 2010, en la resolución de 24 de junio de 2010 por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas a las iniciativas que promuevan la certificación de la Calidad y la Excelencia en la Gestión en los subsectores turísticos vascos, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuari zuzenduta, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 4a.

Merkataritza eta Turismoko sailburuordea,
MARÍA PILAR ZORRILLA CALVO.

Segunda.– Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 4 de noviembre de 2010.

La Viceconsejera de Comercio y Turismo,
MARÍA PILAR ZORRILLA CALVO.